# Denbora-

## 1 Ezberdintasunak

*Braulio* dinosauroak Mantangorri gehigarrian agertu nahi zuela eta, bere bi argazki bidali dizkigu. Hasieran, berdinak zirela uste genuen. Bi argazkien artean, ordea, 7 ezberdintasun daudela ohartu gara. Zein?





## 2 Kopiatu koadroz koadro

Nekanek erosi berri duen aterkiaren marrazkia bidali digu. Ongi marrazten du Nekanek, ezta? Ea zu ere aterki berdina marrazteko gai zaren beheko koadroetan!





# -pasa

## 3 Itzalak

Barraskiloen lasterketa egiteko hauxe da Iñigok aukeratu duen barraskiloa. Asmatuko al zenuke itzal horietatik guztietatik zein den Iñigoren barraskiloarena?




## 4 Puzzlea

Jone bere urtebetetze egunean oparitu dioten puzzlea egin nahian dabil. Puzzlea osatzeko, ordea, pieza bakarra falta zaio. Pieza horietatik zein da puzzlearen hutsunean sartzen dena?




Erantzunak: **3. Itzalak** (c) **Puzzlea** (a).

# jolasa

## Esku metaketa

Esku metaketa joko arrunta da, baina dibertigarria. Abiadurak eta jokalarien abileziak garrantzi handia dute, esku metak denbora luzez iraun nahi badu, behintzat.



**1** Jokalari guztiak biribilean edo mahai baten inguruan esertzen dira.

**2** Jokalari batek mahaiaren erdian ezartzen du eskua, esku ahurra beherantz begira duela. Pixkanaka-pixkanaka, gainerako jokalari guztiak eskuak bata bestearen gainean pilatzen joango dira. Jokalari guztiek esku bat jarri dutenean, beste eskua jartzen hasiko dira.

**3** Meta amaitu ostean, eskua ezarri duen lehen jokalariak eskua kenduko du metaren azpiko aldetik, eta esku pilaren gainean ezarriko du. Gainerako jokalariek ere gauza bera egingo dute.

**4** Esku aldaketa abiada bizian egiten doaz jokalariak, azkar-azkar, esku meta hausten den arte.